

UDALEAN AURKEZTU NAHI DIREN PROPOSAMENAK

SORTU

1. Herrian berdegune gehiago sortzea. Horrela zelaietako landareek toki gehiago izango dute. Honekin batera, landare-itsutasunari aurre egiteko belardian dauden espeziei buruz informazio panelak jartzea.
2. **Loratu Herria** moduko ikastetxe mailako ekintzak sustatu eta laguntzea:
 - Zelai bat edo zati bat moztu gabe uztea ikastetxeek baliabide didaktiko moduan erabili ahal izateko eta polinizatzaileek beraien lana behar bezala egiteko, gainera guretzat ere mesedegarria da.
 - Tximeleta-oasia egitea herriko belardi batean.
3. Ikastetxetik Munoaundiko urmael eta zuhaitzen landaketaren inguruko proiektuarekin jarraitu eskolentzako ekintzak antolatuz: bisitak eta jarduerak, informazio panelak jartzea...
4. Floreaga gaineko baso eremua (jolas lekuaren gainean dagoena) udalarena da eta inguruko baserri eta txaboletako jabeek animalientzat erabiltzen dute. Guk ere modu seguruan bertan ibiltzeko aukera izatea gustatuko litzaiguke, izan ere oso gertu dugu eta hainbat ikasgai lantzeko aukera ematen digu.
5. Biziloretik pasa eta Munoaundirantz doan bidean hurrengo moldaketak egin:
 - Oinezkoentzat bide bat egokitzea: espaloia jartzea edo markatzea, inguruan dagoen belarra moztu bertatik ibili ahal izateko...
 - Kotxeen abiadura murrizteko zerbait egitea.
6. Elementu naturalak erabiliz herrian parke polit eta jostagarri bat egitea.

ZAINDU

1. Zuhaitzak eta landareak bakarrik beharrezkoa denean moztu eta posible den heinean, beste toki bat aurkitu haientzat.
2. Herriko toki naturalak eta berdeguneak babestu.
3. Azkoitia BHI Ikastetxe ondoan dagoen malda ikastetxeak berak kudeatzeko aukera ematea.
4. Etxebizitza berriak egiten direnean inguruan gune berdeak egiten direla bermatzea eta horrelako ekintzak bultzatzen dituzten arauak egitea.

BESTELAKOAK

- 1.** Baserrien ekoizpena ekologikoa izan dadila bultzatu.
- 2.** Zelaiak garbi mantendu daitezen (zaborrik eta txakurren gorotzik gabe) egiten den lanarekin eta sentsibilizazioarekin jarraitu.
- 3.** Birziklatzearen truke dirua ematen duten “vendig” motako makinak jarri.
- 4.** Kaleko zaborrontziei mantenu hobea eskaintzea:
 - Koloretako zaborrontziak jartzea, adibidez Elkargune sarreran.
 - Zaborrontziak jartzea Floreaga ikastetxeko irteeran, esaterako aldapa hasieran, meriendan sortutako hondakinak bota ahal izateko.
 - Puskatuta daudenak azkar aldatu.
- 5.** Pipentzat poltsak eman, lehen egin zen bezala.